

Nork gauzatu behar du kotizazioa?

Oro har, kotizatu egin behar dute Araubide Orokorren ezarpen-eremuan sartzen diren enpresaburuak eta beren jardura enpresaburuon kontura burutzen duten langileak.

Enpresaburuak izango du **kuotak ordaintzearen** ardura. Hark berari eta bere langileei dagozkien zenbatekoak ordaindu beharko ditu.

Enpresaburuak langileei ordainsariak ematen dizkien unean atxikiko du langilearen kuotaren zenbatekoa.

Baldin eta zenbatekoak une horretan atxikitzen ez baditu, enpresaburuak bere kontura soil-soilik ordaindu beharko ditu kuota guztiak.

Langilearen lanbide kategoriaren kotizazio-taldeari dagozkion gertakizun guztietarako -gehieneko eta gutxieneko- kotizazio-oinarriak urtero argitaratuko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean, Diruzaintza Orokorra gai hauei buruzko informazio-orri zehatzagoak argitaratzearen kalterik gabe.



**INFORMAZIO-LIBURUXKA HONEN EDUKIA
ORIENTAGARRIA DA,
EZ LOTESLEA**

**ARGIBIDE ZEHATZAGOAK JASO NAHI
BADITUZU, JO EZAZU ZURE BIZILEKUTIK
HURREN DAGOEN DIRUZAINZTA OROKORREAREN
PROBINTZI ZUZENDARITZARA EDO GIZARTE
SEGURANTZAREN ADMINISTRAZIOA, EDO
BESTELA, ERABIL EZAZU HIRITARRENTZAKO
KUDEAKETARAKO ETA TELEFONO BIDEZKO
LAGUNTZARAKO ZERBITZUA**

PROBINTZIAKO ZUZENDARITZAK


	POSTA-KODEA	HELBIDEA
ÁLAVA (Vitoria)	01004	C/ Postas, 42-A
ALBACETE	02002	Avda. de España, 27
ALICANTE	03005	C/ Enriqueta Ortega, 2
ALMERÍA	04007	C/ Fuente Victoria, 2
ÁVILA	05001	Avda. Portugal, 4
BADAJOS	06002	C/ Ronda del Pilar, 10
I. BALEARS (P. Mallorca)	07003	Rambla dels Ducs de Palma de M., 18
BARCELONA	08007	C/ Aragó, 273-275
BURGOS	09002	C/ Andrés Martínez Zatorre, 15-17
CÁCERES	10001	Avda. de España, 14
CÁDIZ	11008	Avda. Amílcar Barca, 5
CASTELLÓN	12003	Plaza Juez Borrull, 14
CIUDAD REAL	13001	Avda. Rey Santo, 2
CÓRDOBA	14008	Avda. Ronda de los Tejares, 23-25
A CORUÑA	15005	C/ Federico Tapia, 52-54
CUENCA	16001	Parque de San Julián, 7
GIRONA	17005	Avda. Josep Tarradellas i Joan, 3
GRANADA	18001	C/ Gran Vía de Colón, 23
GUADALAJARA	19001	C/ Carmen, 2
GUIPÚZCOA (S. Sebastián)	20010	Paseo Podavines, 3
HUELVA	21001	C/ Puerto, 50
HUESCA	22003	C/ San Jorge, 34 y 36
JAÉN	23009	Avda. de Madrid, 70
LEÓN	24002	C/ Cinco de Octubre, 20
LLEIDA	25004	C/ Salmerón, 14-16
LA RIOJA (Logroño)	26001	C/ Sagasta, 2
LUGO	27001	Plaza del Ferrol, 11
MADRID	28036	C/ Agustín de Foxá, 28-30
MÁLAGA	29007	C/ Ingeniero de la Torre Acosta, 5
MURCIA	30009	C/ Ortega y Gasset, s/n
NAVARRA (Pamplona)	31003	Avda. Conde Oliveto, 7
OURENSE	32003	C/ Concejo, 1
ASTURIAS (Oviedo)	33007	C/ Pérez de la Sala, 9
PALENCIA	34003	Avda. de la Antigua Florida, 2
LAS PALMAS	35004	C/ Pérez del Toro, 89
PONTEVEDRA (Vigo)	36201	Avda. García Barbón, 36-1º
SALAMANCA	37001	Paseo de Canalejas, 129
SANTA CRUZ TENERIFE	38003	Avda. José Manuel Guimerá, 8
CANTABRIA (Santander)	39002	Avda. Calvo Sotelo, 8
SEGOVIA	40001	Plaza Reina Doña Juana, 1
SEVILLA	41018	C/ Pablo Picasso, s/n
SORIA	42001	C/ San Benito, 17
TARRAGONA	43003	C/ Rambla Nova, 84
TERUEL	44001	Paseo de la Glorieta, 1
TOLEDO	45001	Plaza San Agustín, 3
VALENCIA	46002	Avda. Marqués de Sotelo, 8-10
VALLADOLID	47004	C/ Gamazo, 5
VIZCAYA (Bilbao)	48011	C/ Gran Vía, 89
ZAMORA	49012	Avda. de Requejo, 23
ZARAGOZA	50008	Avda. de las Torres, 22
CEUTA	51001	C/ Real, 20
MELILLA	52001	C/ General Marina, 18
SERVICIOS CENTRALES	28007	C/ Astros, 5 y 7. Madrid

HERRITARRAK BULEGOETAN
HARTZEKO ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera,
09:00etatik 14:00etara

TELEFONO BIDEZKO ARRETA PERTSONALIZATUA
Astelehenerik ostegunera, 09:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 18:00etara. Ostiralean, 09:00etatik 14:00etara.
901 50 20 50

Internet: www.seg-social.es

ARAUBIDE OROKORREKO LANGILEAK



Informazio- liburuxka



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO
E INMIGRACIÓN

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINZTA OROKORRA

Ondokoa da informazio-liburuxka honen xedea: interesatuari liburuxkan jorratzen den gaiari dagozkion alderdirik adierazgarrienei buruzko informazio erraz eta ulergarria ematea. Hala ere, kontuan hartu behar da liburuxkaren edukiek gaiaren ikuspegi orokorra baino ez dutela ematen. Ez dira alor guzti-guztiak zehatz-mehatz jorratzen eta, hainbestez, ezin daiteke kasu zehatz bati buruzko adierazpen lotesletzat jo.

Zein pertsona daude Araubide Orokorraren barruan?

Besteren konturako langileak, 16 urtetik gorakoak, beren zerbitzuak industri jarduera edo zerbitzu jarduera jorratzen duten enpresei ematen dizkietenak, dena delarik kontratazio modua.



Zer da afiliazioa?

Pertsona bat Gizarte Segurantzaren sisteman sartzea gauzatzen duen administrazio-egintza da; egintza horren bidez, pertsona horrek **AFILIATU** izaera eskuratzen du eta Gizarte Segurantzako Afiliazio-Agiria (Gizarte Segurantzako Txartela) jasotzen du.

Afiliazio-Agirian **Gizarte Segurantzako Zenbakia** agertzen da. Zenbaki hori **bakarra eta biziartekoa** da, langilearen lan-egoeran gerta daitezkeen aldaketak gorabehera.



Nola eta noiz jakinarazten da langile baten alta?

Enpresaburuak nahitaez eskatu behar du bere langileen ALTA bere bizilekutik hurren dagoen **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Administrazioan** edo **DIE SISTEMA** erabiliz.

ALTA eskabidearen inprimakia langileak bere zerbitzuak ematen **hasi aurretik aurkeztu behar da**.

Zerbitzugintza hasi ostean aurkezten den ALTA **epetik kanpokotzat** hartuko da.

Pertsona bat lan-merkatura **lehen aldiz** iristen denean, hura kontratatzen duen enpresak Gizarte Segurantzako **AFILIAZIOA** eskatu beharko du, langileak Gizarte Segurantzako Zenbakia lehendik esleiturik ez badu.



Altek noiz izaten dituzte ondoreak?

ALTAK langileak jarduera hasten duen egunetik aurrera izaten ditu ondoreak, bai prestazioak jasotzeko eskubideari dagokionez, bai kotizatu beharrari dagokionez.

Atzeraturik dauden edo **epez kanpo** aurkezten diren ALTEK beroriek aurkezten diren egunetik aurrera baino ez dituzte ondoreak izango.

Nola eta noiz jakinarazten dira langileen bajak?

Langilearen **BAJA Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Administrazioan** aurkeztu behar da, lanaren uztea gertatzen den egunaren hurrengo sei egun naturalen epealdiaren barruan.

BAJA aurkezteak lanaren uztea gertatzen den egunetik aurrera kotizatu beharra iraungiaraziko du, baldin eta aurretiaz baja hori epe eta era egokian jakinarazten bada.



Zer da kotizazio-oinarria?

Gizarte Segurantzaren Araubide Okorrrak ematen duen babesaren barruan dauden gertakizun eta egoera guztietarako kotizazio-oinarria langileak edo beroni berdinetarako hileroko egiten duen lanaren truk hileroko jasotzeko eskubidea duen edo, parekoa edo handiagoa izatekotan, benetan jasotzen duen guztirako ordainsariaren arabera zehaztuko da, ordainsari horren era edo izena dena delarik ere.

Oinarri horri ezarririk dauden kotizazio-tasak aplikatzen zaizkio, halako moldez non Gizarte Segurantzari ordaindu behar zaion kuota edo zenbatekoa lortzen baita.

